

Getxo >MEETING<



10 de diciembre
Balantzea egin baino lehen, 2020ko lorpenak izango ditugu aztergai.

Urteko azken Getxo MEETING saioak gorantz begiratzeko balio izan digu. Bai, beti perspektiba hartu beharra dago, eta bereziki urte arraro honetan.

Izan ere, lorpen txikiek, aurrerapenek, eboluzioak eta ikuspuntua oharkabean doaz mezu elektroniko, dei eta fakturen artean. Horrenbestez, bidean geldialdi bat egin beharra zegoen, eta Getxo MEETING estilora egin dugu: denbora eskasean ikasgaiak ateraz.

Bi ariketa egin ditugu:

Lorpenen zerrenda:

Lorpenen zerrenda ez dago soilik gauza handien edo epikoen izenburuez osatuta. Pertsona eta enpresen aurrerapen handiak, garrantzitsuak, sotilak ere badira. Emaitzari nahiz prozesuaren aurrerapenari dagokionez kuantitatiboak eta kualitatiboak diren lorpenak.

Erritmoa gelditzeak eta memoria egiteak gertatu dena nabarmentzera bultzatuko zaitu; batzuetan naturalki egingo duzu baina beste batzuetan, aldiz, bat-batean, urte honetan jazotako egoerak behartuta.

Zeure burua saritu:

Zeure burua aitortzea merezi duzulako. Ariketaren helburua zeure buruari emango diozun sarirako hitzaldia idaztea da. Hitzaldi batean esker ona adierazi behar da, bai eta aitorten horrek bereziki zergatik pozten zaituen azaldu ere.

Zertarako egin behar da hori?

Bultzada hartzeko lagungarri izango zaizu, 2021. urtea heltzear baita. Ospatu ahal izateko, lehenik eta behin ospatzeko gauzak egon badaudela ohartu behar gara.

Bileran zehar, galdera hau egingo diogu geure buruari: zer ondorio atera dugu bi ariketak egin ondoren?

Sortu diren hausnarketa batzuk:

- Nire indarguneez ohartzea
- Lehen neukan egoerari nola eman diodan buelta nabarmentzea.
- Energia.
- Motibazioa Nire helburuekin birkonektatzea, bai lehen nituenekin, bai berriekin.
- Oharkabean geratu diren esperientziak.